



3 HITZALDIA

Auzolanaren balioei buruzko hitzaldia irailaren 19an

Urtebete egin du Ganbo Iturri elkartearen 'Elkarbizi' egitasmoak. Hori dela eta, auzolanaren balioei buruzko hitzaldia bat antolatu du larunbat honetarako. Elkarteko kide Enrique Ayerbek emango du 'Euskal seneko balioak elkarbizitzaren alde' solasaldia Ganbo Iturriren egoitzan, 11:00etan. Interesa dutenek ganboiturri@gmail.com helbidera idatzi beharko dute plaza hartzeko.

4 JAIK

Hiru eguneko jaiak ospatu ditu Extremadura etxeak

Atzo arratsaldean bukatu ziren Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko jaiak. Ostiraletik igandera bitarte ekintzaz beteriko egitarauaz gozatu dute herritar zein antolatzaileek. Kultura, gastronomia eta kirola bezalako hainbat alor presente egon dira asteburuan zehar Jai-zibel plazan eta inguruetan. Antolatzaileek adierazi dute gustura daudela, ospakizunek harrera oso ona izan dutelako herritarren artean.



Mugikortasun jasangarria helburu

Ekintzak egingo dira herrian garraiobide jasangarriak sustatzeko

"Aukeratu. Aldatu. Konbinatu zure mugikortasuna" lelopean ospatuko da aurten Mugikortasunaren Europako Astea eta jendea garraio-alternatiba ezberdinetan pentsatzera animatu nahi du. Lasarte-Oria 17tik 22ra bitartean izango dira ekintza desberdinak eta egitaraua ostiralean aurkeztu zuten Udala eta Artelatzeke ordezkariak. Azken urteetan bezala, bigarren eskuko bizikleten azoka egingo da ostiral arratsaldean Okendo plazan.



Herritarrek ekintzetan parte hartzera animatu zituzten udal ordezkariak.

Udalak Europako Mugikortasun Astearekin bat egin du aurten ere eta honen aitzakitan, ekintza egitarau berezia izango da irailaren 17tik 22ra bitartean.

Jesus Zaballos alkateak, Agustin Valdivia Ingurumen zinegotziak eta Artelatzeke Eli Gondat-ek aurkeztu zuten egitaraua ostiralean.

Horrela izanda, ostegunean, oinezkoen erabilera sustatzeko, trafikoa itxi egingo da Kale Nagusian, Torre etxe-ko biribilgunetik Ola Kalera, eta hainbat jarduera ludiko eta kirolezko egingo dira honetan. Besteak beste, Segway zirkuitua izango dute aukeran 10 urtetik gorako gaztetxoek.

Ostirala berriz, bizikletaren eguna izango da. Bizikleta martxa egiteko aukera izango dute haur eta gazteek. 16:30ean Okendotik abiatuko

da 6-11 urte bitartekoek martxa eta 17:00ak aldera berriz, 12 urtetik gorakoek txanda izango da. Hauek ibilbide luzeagoa egingo dute herriko bidegorri saretik.

Horretaz gain, Okendo plazan bizikletaren gainean egiteko jolasak eta bigarren eskuko bizikleten azoka izango dira.

Bigarren eskuko azoka

Eli Gondatek azaldu moduan, urtetik urtera azokaren arrakasta handitzen joan da. "Iaz herritarrek ekarritako materialaren erdia baino gehiago saldu zen eta truke-rako aukera ere egon zen".

Aurreko edizioetan bezala, herritarrek etxean erabiltzen ez dituzten bizikletak, patinak zein osagaiak eraman beharko dituzte azoka hasi aurretik, 15:00etatik 16:30ak bitartean, Okendora.

Jabeak fitxa bat bete

beharko du saltzeko utzitako materiala berea dela ziurtatzuz. Azokaren ostean, 19:30etatik 20:00ra, diru bila edo ez saltzekotan, materiala jasotzeko azaldu beharko dira herritarrek Gondatek azpimarratu bezala.

Trukearen aukera ere badagoela aipatu zuten. Horretarako bertan egon beharko dira jabeak. Izan ere, antolakuntza ez da halakoez arduratuko.

Bestalde, astelehenean, irailak 21, bi orduko ikastaro bat egingo da, 16 urtetik gorakoei zuzenduta, hirian barrena bizikletaz zirkulatzen ikasteko. "Ikastaro teoriko-praktikoa izango da eta bizikleta eraman beharko dute parte hartzaileak. Araudiaren berri eman eta hirian bizikletarekin nola jardun ikasiko da". Honetan plaza mugatuak dira eta parte hartzeko, aurrez izena eman

beharko da 943 670 249 zenbakira deituta. Azkenik, asteartea autorik gabeko eguna izango da eta herri barruan mugitzeko, Mantangorri doan izango da egun guztian.

Agustin Valdiviak azaldu duenez, ekintza hauek Artelatzen enpresak antolatuko ditu udalak bideratutako 6.000euro-ko aurrekontuarekin. Egitarauaren berri herritarrek izan dezaten, 7.000 esku-orri banatuko dira gaurtik herriko etxe guztietara, "programari buruzko informazioaz gain, mugikortasun jasangarriko aholkuak ere txertatu dira honetan".

Gogoratu nahi izan dute Mugikortasun Jasangarriaren Europako Astea Europa mailako kanpaina bat dela hirietan ibilgailuen erabilera gutxitzeko, horren ordeztu oinezko, bizikletazko edo garraio publikozko mugikortasuna sustatuz.

UDA-TIK BUELTAKO ESKAINTZAK

Bideo Lagunak

Etzekotresna elektrikoetan adituak

12 ORDAINDU
HILABETETAN
INTERESIK GABE

TIN: 0% TAE: 0%

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideo lagunak.com

GIZARTEA

Murua eta Alberdi Lasarte-Oriako parroko berriak

Xabier Andonegik San Vicente elizako ardura hartuko du

Xabier Andonegi apaizak azken egunak ditu Lasarte-Oriako San Pedro elizako parrokoa bezala. Irailaren 27an Donostiako San Vicente elizako parrokia hartuko du bere gain eta hamazazpi urteren ostean, Lasarte-Oriako elizbarrutia utziko du. Ez da apaizik etorriko bere hutsunea betetzeko eta Juan Luis Murua Arantzazuko Amaren elizako parrokoa eta Usurbil eta Aginagako parroko Ibon Alberdik batera hartuko dute Lasarte-Oria eta Usurbilgo elizbarrutia zuzentzeko ardura. Hiru apaizekin hitz egin dugu egoera berriari buruz jakiteko.

Irailaren 20an, 12:30ean, eskainiko du Xabier Andonegik azken meza San Pedro parrokian. Izan ere, Donostiako San Vicente elizako parroko berria izango da. Andonegik azaltzen digun bezala, "Felix Garitano egungo parrokoak erretiroa hartzen du eta bere lekuan ni joango naiz. Gainera, Felix Brigitarren komentuko kape-raz arduratuko da".

Lasarte-Oriak parroko berria izango du beraz, edo hobe esanda, bi parroko izango ditu. "Erretiratzen diren apaizen lekukoa hartuko dutenen apaiz edo apaizgaien kopurua txikia eta zaila izango da aurrerantzean hutsuneak betetzea", aipatu du Juan Luis Muruak.

Ondorioz, Juan Luisek berak eta Usurbil eta Aginagako parroko den Ibon Alberdik hartuko dute bere gain erantzukizuna. "Figura berri bat da 'in solidum' parrokoa. Horrek esan nahi du, biak izango gaiten elizbarrutia osatzen duten lau elizen parroko, bereiztasunik gabe", aipatu du Muruak.

Ibilbidea

Juan Luis Murua aňorgatarrak 20 urte daramatza Lasarte-Orian apaiz lanetan.

Lehenik apaiz lagunkidea izan zen Arantzazuko Amaren elizan eta 2004an On Ramon Uribe-Etxeberriak erretiroa hartzerakoan parroko bilakatu zen.

Ibon Alberdi hernaniarra berriz, Erreterian izan zen 10 urtez, lehenik apaiz gai eta gero apaiz lanetan.

Duela 6 urte Usurbileko Salbatore elizako eta Aginako San Frantzisko elizako parroko izendatua izan zen.

Ordutegi aldaketak

Apaizek aipatu lege, eliztarrei egoera azaldu zaie, elizkizunetan aldaketak izango baitira. "Lau parrokiak ordutegiak antolatu eta finkatu ditugu, batez ere, meza eta hiletak", azpimarratu dute.

Lasarte-Oriako elizei dagokionez, larunbatean San Pedro elizan izango da bakarrik meza. Hau 19:00etan egingo da eta bi hizkuntzatan eskainiko da.

Igandeari dagokionez, San Pedro parrokian 10:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaraz izango dira mezak; Arantzazuko Ama elizan, aldiz, famili eukaristia egingo da 11:00etan bi hizkuntzatan eta gaztelarazko meza 12:00etan.

Hiletak

Parroko berriek azaldu digutenez, hileta elizkizunetan honako baldintzak jarraituko dira:

- Lehen hildakoaren ahaidetik aukeratuko dute tokia, eliza. Beste norbait hilko balitz eta egun berean nahiko balu hileta, biak elkarrekin izango lirateke toki berean, aurrenekoek aukeratutakoan.



Ibon Alberdi, Xabier Andonegi eta Juan Luis Murua apaizak.

- Hizkuntza aldetik, biek hizkuntza bera nahiko balute aukeratutako hizkuntzan egingo litzateke. Beste kasu guztietan bi hizkuntzatan ospatuko litzateke hileta.

- Elkarrekin hileta egiterik nahiko ez balu edo beste elizan ospatu nahiko balu, hurrengo egunean ospatuko litzateke. Baina beste hildakorik balego elkarrekin izango lirateke berriz ere.

Agurra eta izendapena

Baina lehen aldaketak irailaren 20ko asteburuan egingo dira, herritarrek Xabier Andonegiren agurrean parte hartu ahal dezaten.

Asteburu horretan honakoak izango dira elizkizunetan ordutegiak Arantzazuko Ama elizan larunbatean, 20:00etan eta igandean 11:00etan. Bi mezak bi hizkuntzatan egingo dira. San Pedro elizan, aldiz, larunbatean 19:00etan euskaraz.

Juan Luis eta Ibonen izendapen ofizialerako eguna berriz, irailaren 27an izango da: "Gotzaina etorriko da izendapen berriari bedeinkapena emateko".

Ospakizuna San Pedro parrokian, 12:30ean egingo

da. "Ospakizun honetara denok gaude gonbidatuak, Kristau elkarte bat izanik, ospa dezagun elkarrekin Eukaristia. Horregatik ahal dugunok elkartu gaituzten San Pedroko Eukaristia honetan".

Ondorioz, Arantzazuko elizan meza bakarra izango da asteburu horretan, igandean 11:00etan bi hizkuntzatan. San Pedro parrokian berriz, bezperan, larunbatean 19:00etan euskarazko meza eskainiko da.

Oria eta komentua

Era honetara, Lasarte-Orian lau apaiz izango ditugu: Bi parroko eta bi erretiratu. Batek On Ramon Uribe-Etxeberria eta bestetik, Felix Garitano.

"On Ramon prest agertu da ahal duen guztian laguntzeko", aipatu du Muruak. Horregatik igandeetako meza bat eskainiko du San Pedro parrokian edo Arantzazuko Amaren elizan.

Brigitarren komentuan Felix Garitano izango da apaiza eta aldaketarik ez dela izango aipatu dute. Mezak egunero 11:00etan izango dira.

Horren harira, Andonegik Brigitarren komentuan uztai-

laren 23an Santa Brigida egunean Felix Garitanoren aurkezpen ez ofiziala egin zuela jakinarazi digu.

Baina bada aldaketa horiekin guztiekin kalteturik: Oriako auzoa.

Karmengo Amaren kaperan egun berezietan soilik izango da meza. "Igandeko mezak apaiz batek eskaini ahal izateko horrela adostu dugu," aipatu du Muruak.

Eliztiarrak moldatu


Alberdik aipatu digunez, "Usurbilen duela 6 urte, ni iristean, arazo hori izan genuen; 3 apaiz izatetik batera pasa zen. Solasaldi sanoa sortu dugu parrokiako kideekin guztiak adostasun batera iristeko. Pixkanaka landu da, parrokia bakoitzeko aniztasuna errespetatzeko".

"Aldatzea zaila da, baina moldatu beharko gara. Mentalitate aldaketa egin behar dute eliztiarrek eta batetik bestera mugitu behar direla onartu behar dute", aipatu du Muruak.

"Parrokia itxikeria gainditu behar da. Erronka komunitate kristau bat sortzea da, hau izango da garrantzitsua", azpimarratu du Alberdik.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.info

publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

ELKARBIZITZA

Auzolanaren balioak

Enrique Ayerbek hitzaldia eskainiko du irailaren 19an

Ganbo Iturri elkarteren Elkarbizi ekimenak lehenengo urteurrena bete du. Bizikidetzari buruzko prestakuntza plangintzan ari da lanean elkartea eta honen baitan, "Euskal seneko balioak elkarbizitzaren alde" hitzaldia antolatu du.



Mari Asun Izeta, Enrique Ayerbe eta Joxean Rekondo aurkezpenean.

TXINTXARRI

Auzolanak bere baitan dituen balioek egun bizi dugun elkarbizitza arazoa konpontzeko baliagarriak direla uste dute Ganbo Iturri elkarteak kideek.

Horregatik, irailaren 19an, larunbata goizeko 11:00etan, "Euskal seneko balioak elkarbizitzaren alde" hitzaldia antolatu dute elkarteak egotzan.

Joxean Rekondo, Mari Asun Izeta eta Enrique Ayerbe elkarteak kideek aurkeztu zuten ostiralean hitzaldia.

Bertako tresnak

Joxean Rekondok gogoratu zuenez, hitzaldi hau elkarbizitzaren aldeko prestakuntza plangintzaren bigarren ekintza da.

Bere hitzetan elkarbizitzaren alde lan egiteko atzerriko adituei deitzen zaie haien herrialdeetan gertatutako azaltzeko, baina "bertan ditugun tresnak aurkitu eta horiekin lan egitea garrantzitsua dela uste dugu".

Horregatik, etxetik, auzotik edo herritik ikasitako baloreak eta senak kontuan izan eta hainbat berreskuratu behar direla ikusirik hitzaldia antolatu dute.

Auzolana

Agerraldian azaldu moduan, Enrique Ayerbe elkarteak kidea izango da hitzaldia eskainiko duena.

Ayerbek adierazi zuenez, "biolentzia amaitu da baina haustura dago elkarbizitzan".

"Historikoki arazo eta gatazka latzak bizi izan ditugure herriak eta hauek konpondu ditu. Nola konpondu ordea? Erantzuna herriaren memorian dago eta hau instituzioetan dago. Hauek ohitura eta usadioak dira eta bere baitan balioak dituzte", azaldu zuen.

Hori kontuan izanik, auzolana eta bere balioak izango dira hitzaldiaren oinarri.

"Sentsibilizazio handia dago gaur egun kontu hone-

kin eta egun dagoen elkarlanerako jarrerak honetan du oinarria", azpimarratu zuen.

Burujabetasuna, laguntza eskaintza... auzolanak bere baitan dituen baloreetako batzuei buruz hitz egingo dela aurreratu zuen.

"Ikuspuntu modernoak eskainiko dugu, ez gara etnografian oinarrituko. Aitzineko usadioak hartu eta ekintza horien atzean dagoen balorea kontuan izango dugu. Eta gaur egun duen hitz teknikoak emango diogu", aipatu zuen.

Izan ere, bere aburuz, elkarbizitza lortzeko balio hauek berreskuratu behar baitira, batez ere, elkarrekikotasuna.

Izena ematea

Agerraldian jakitera eman zuten, hitzaldi honetako plaza kopurua mugatua da. Beraz, ganboiturri@gmail.com helbidera mezu bat bidaliz izena eman behar dute honetara joateko interesaduten herritarrek.

KULTUR KALE

Mery May & the Muppets kontzertua bertan behera

Kultur Kale ekimenaren baitan, larunbatean, arratsaldeko 19:30ean Mery May & Muppets taldeak eskaini behar zuen kontzertua bertan behera geratu zen eguraldia iragarpen txarrragatik.

Zikloko antolatzaileek jakitera eman dutenez, kontzertua beste data batean eskainiko da, baina zehazteke dago oraindik.

ERKETZ EDT

Dantza eskolan izena emateko epea zabalik

5 eta 14 urte arteko haur eta gazteek aukera dute Erketz euskal dantza taldeko dantza eskolan izena emateko. Honetarako taldeak egun batzuk zehaztu ditu: irailaren 15a asteartea, 16a asteazkena edo 17a osteguna.

Izena ematea Zumaburuko eskolan egingo da, 18:00etatik 20:00tara. Informazio gehiagorako 635 746 028 telefonora dei daiteke.

EUSKARA

Udal Euskaltegian izena emateko azken egunak

Lasarte-Oriako Udal euskaltegiaren matrikulazio garaia amaitzeaz da.

Euskara ikasi edo hizkuntz eskakizunak eta HABEren azterketak prestatzeko saioak eskaintzen ditu Udal euskaltegiak eta ikasgelara hurbildu ezin direnentzat, auto-ikaskuntzaren aukera ere badute.

Ikastaroaren iraupena irailetik ekainera da. Klaseak astelehenetik ostegunera dira eta ordutegi zabala dute. Txandaka aritzeko aukera ere eskaintzen da.

Izena emateko azken eguna bihar irailaren 15a da. Ikasleek matrikularen %85a berreskuratu dezakete, Udalaren dirulaguntzei esker. Informazio gehiagorako 943 361 621 telefonora deitu, 9:00etatik 19:15era.

MATRIKULAZIOA

Lasarte HHI-n matrikulatzeko aukera

Formazio arautua (DBH) eta zikloetarako sarbide frogak egiteko matrikulazio epea irailaren 3an zabalduko da eta 15era bitartean izango dute herritarrek aukera Lasarte HHI-n izena emateko.

Formazio ez arautuko ikastaro eta ikasgaietan interesa dutenek berriz, irailaren 9tik 15era izango dute izena emateko epea.

Izena emateko, astelehenetik ostegunera 11:00etatik 13:00etara eta ostiraletan 10:00etatik 12:00etara egin ahal izango da. Matrikulak zentroan bertan egingo dira, anbulatorioko eraikinean.

Edozein zalantza edo informazio eskuratzeko www.EpaLasarte.es edota 943 376 608 telefonora jo daiteke.

HEZKUNTZA

Usurbilgo Lanbide eskolan langabetuentzat ikastaroak

Usurbilgo Lanbide eskolak, langabetuentzat ikastaro ezberdinen eskaintza zabala aurkeztu du ikasturte berriarekin batera.

Ikastaro hauek Lanbidek diruz laguntzen ditu, eta horrela izanda aukera dago honakoak ikasten hasteko: eraikinetako ur-erabileraren eraginkortasuna, eguzki-instalazioen bideragarritasunari buruzko azterlanak, energiaren erabilera eraginkorra sustatzea, oinarritzko mekanizazioa, eguzki-energia termikoko instalazioak muntatzeko eta mantentzeko oinarritzko eragiketak, fabrikazio mekanikoko laguntza eragiketak, CNC fresa Heidenhain programazioa eta torno Fanuc eta Cam Gibbs programazioa eta azkenik, fabrikazio mekanikoko produktuen dokumentazio tekniko-3D diseinua CATIA.

Ikastaroak datozen hilabeteetan hasiko dira eta iraupen ezberdina izango dute. 40 eta 400 orduko ikastaroak dira guztiak.

Bakoitzaren inguruko informazioa eskuratzeko www.lhusurbil.eus webgunean edo 943 364 600 telefonon egin behar da.

Herriko hainbat kale asfaltatuko dira

Lasarte-Oriako Udalak Kale Nagusia, Pablo Mutiloza-bal, Juan de Garai, Pintore, Geltoki Kalea eta Sasoeta Ibilbidea asfaltatzeko pleguak atera ditu.

Ostiralean Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratu zituen Lasarte-Oriako udalak hainbat kaleetako asfaltatze lanak esleitzeko baldintzak.

Orain enpresek euren proposamenak aurkeztu beharko dituzte udalean eta behin lanak zein enpresak egingo dituen erabakita, urtea bukatu aurretik, eguraldiak aukera ematen badu behintzat, lanak egingo lirateke.

Iragarkian zehaztu moduan asfaltatze lanen kostua 391.332,76 euro (BEZa



Iñigo de Loyola kaleko zuloekin kexu dira bizilagunak.

sartu gabe) izango da. Asfaltadikoa da kale hauek asfaltatzearen nahia.

Egoera txarrean dauden bideak dira eta bizilagunak ere kexatu egin dira behin

baino gehiagotan. Neguan lan hauek egitea zaildu daiteke euriarekin ezin direlako egin. Hala ere, aukera egotekotan, asfaltatze-lanak abenduan egitea espero da.



Giro ederra egon zen 'ExtremayDura' rock jaialdian ostiral gauean, Jaizkibel plazan.



Banderaren altxatze ekitaldiarekin batera hasi ziren ofizialki Extremadura etxearen ospakizunak, ostiral iluntzean.



Gaztetxoek ere primeran pasa dute asteburu osoan zehar jolasean.



Zambra andaluziar taldeko dantzariak ikuskizun bikaina eskaini zuten Jaizkibelen.



Extremadura etxeko bazkideek eta udal ordezkariak batera afaldu zuten larunbatean.

Extremaduraren festa

Guadalupeko Ama Birjinaren jaiak ospatu dituzte

Ekitaldiz beteriko hiru eguneko jaiak ospatu ditu Extremadura etxeak. Guadalupeko Ama Birjina omendu dute ostiralean hasi eta atzo arte. Kultura, gastronomia, kirola eta beste hainbat alor bildu dituzte egitarauan, adin tarte guztietako jendeari ekintzetan parte-hartzeko aukera emanez. 2016ra itxaron beharko dute orain.

Banderaren altxatze ekitaldiarekin hasi zituen hiru eguneko ospakizunak Extremadura etxeak, ostiral iluntzean. Extremaduraren ereserkia abestu zuten ekitaldira hurbildu zirenek. Horren ostean, herri-afaria dastatzera joan ziren horietako asko.

Sabela bete ostean, 'postre' bikaina Jaizkibel plazan: 'ExtremayDura' rock jaialdia. The Zepo, The Northagirres, The Garax eta Bar Remigio taldeek (herrikoak azken biak) girotu zuten ostiral gaua. Jaialdiak harrera bikaina izan zuen eta hainbat jende hurbildu zen musika emanaldiez gozatzera. Kontzertuak amaitu eta gero DJ Avilaren esku-

tik gaueko ordu txikieta arte luzatu zen festa.

Ekintza ugari larunbatean

Goizetik hasi eta gauera arte herritarrek hamaika ekintzaz gozatu zuten. Gaztetxoek marrazketa lehiaketan hartu zuten parte eta gero hainbat jokotan aritu ziren bazkalostera arte: aulkien jolasa, sokatira, zaku lasterketak eta beste hainbat. Aspertzeko segundo bakar bat ere ez zuten izan.

Jendetsua izan zen baita ere eguerdiko meza nagusia. Xabier Andonegi apaizak gidatu zuen. Erretereriako 'Los Ecos de Monfragüe' koruaren abestiak tartekatu ziren apaizaren sermoiarekin.

Goizeko ekitaldiak amaitzean herritar asko Extremadura etxera gerturatu ziren sukaldariak prestatutako paela gozoa dastatzera.

Arratsaldean futbolin txapelketa jokatu zen Buggy tabernan eta mus txapelketa Extremadura etxean bertan. 18:00etan berriz, 'Raices y brotes' taldeak ikuskizun ederra eskaini zuen Jaizkibel plazan, ikusleen gozamenerako.

Gauean elkarrekin afaldu zuten udal ordezkariak eta Extremadura etxeko bazkideek. Indarrak hartu eta gero 'Ibai Berriak' taldearen dantzaldiaz gozatzera hurbildu ziren hainbat herritar. Extremadurako migak dastatzeko parada ere eduki zuten parranderoenak, 1:00ean.

Atzo goizean Zambra taldeko dantzariak igo ziren taula gainera Jaizkibelen. Tute eta bolo txapelketak jokatu ziren arratsaldean eta bandera jaso ondoren, festei amaiera emanez horrela.



Erretereriako Extremadura etxeko 'Ecos de Monfragüe' koruak abestu zuen larunbat eguerdiko meza nagusian.

Danborrada Miranda de Ebron

110 lagunek danborrada doinuak eraman zituzten

Lasarte-Oriako danborradak ederki pasa zuen larunbatean Miranda de Ebroko festetan. Lehenengo aldiz, herriko festen baitako ekintzetan izan zen danborrada udalak gonbidatuta. Ordu bete inguruko saioa eskaini zuten larunbat gaueko desfilean eta jarraian herrira buelta egin zuten bi autobusetan.



Mirandako kaleak girotu zituen Lasarte-Oriako danborradak larunbatean.

Lasarte-Oriako danborrada berriki gonbidatua izan zen Donostian egiten den abuztuaren 31ko ospakizunetara. Bigarren urtez hiriko egun garrantzitsuenetako batean lagundu zuten herritarrek.

Horretaz gain, Murtzian zein Nafarroako hainbat herrietan egondakoak dira herriko danborjoleak. Hortaz, ez da berria larunbateko esperientzia.

Burgosen kokatuta dagoen Miranda de Ebro herritik deitu

eta herriko festetan parte hartzeko gonbita luzatu zieten herriko danborradako kideei.

Horrela, 110 lagun bi autobusetan abiatu ziren Mirandako festetara larunbat arratsaldean. Iluntzeko bederatziatan, Felix Telleriak gidatuta, Sarriegiren doinuekin alaitu zituzten Mirandako

kaleak. Aipatu bezala, pozik bueltatu ziren danborradako kideak herrira.

Harrera beroa izan zuten Mirandan eta ikusmina sortu zuten euren jantziek.

Emanaldiaren ostean ere, festan pixkat murgildu eta ederki pasatzeko aukera izan zutela kontatu dute.

Kilometroak laguntzaile bila



Urriaren 4ko jaian laguntzaileak beharko ditu Usurbilgo ikastolak.

Urriaren 4ean Usurbilen Kilometroak festa ospatuko da 'Gattunk' lelopean.

Hau dela eta, bizilagunek ekintza sorta zabala antolatu dute datozen asteetan baita egunean bertan ere.

Hala ere, Euskal Herriko Udarregi ikastolak antolatzen duen festara gerturatzen diren lagun guztiei harrera egiteko laguntzaile bila ari dira.

Antolakuntzak jakitera

eman duenez, 300 bat lagun dira egun honetarako beharko dituztenak. Hori dela eta, deialdia egin dute Lasarte-Oriako bizilagunak euskararen festan laguntza ematera anima daitezen.

Laguntzaile moduan izena emateko, Udarregi ikastolako idazkaritzara gerturatuta egin ahal izango da, 943 361 216 telefonora deituta edota kilometroak2015@ikastola.eus helbidera idatzita.

ERAIKIN BERRIA SALMENTAN, SOILIK

2 ETA 3 LOGELATAKO 14 ETXEZITZA. SANTA BARBARA ALDEA BISTA EZIN HOBEAK. ZONA BERDEAZ INGURATUTA.

189.000€

+ BEZ-TIK AURRERA

DONOSTITIK SEI MINUTUTAN!



INFORMAZIOA



943 368 942
zabaletaberri.com



%80A SALDUTA 1GO FASEAN

Eraiki aurreko merkaturatze sustapena. Informazio hau alda daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Interesdunen eskura dago gure bulegoetan iragarki honetan ez dagoen gainerako informazio guztia, 515/89 Errege Dekretuak, apirilaren 21ekoak, eskatzen duena.

Kutxabankekin finantzatuta



FUTBOLA.

Jokoa eta aukerak bai, punturik ez

2-0 galdu zuen Ohorezko Erregionalak Hondarribiaren aurka ligako lehen jardunaldian

Porrot batekin hasi du denboraldia Ostadar SKTren Ohorezko Erregionalak. 2-0 galdu zuen Hondarribiaren aurka larunbatean. Neurketa berdindua izan zen oso, Ostadarrek eduki zituen aurretik jartzeko moduko abaguneak baina kamuts ibili zen ate aurrean. Hondarribiak penaltiz sartu zuen 1-0ekoa eta kontraeraso batean erabakita utzi zuen norgehiagoka. Erreterriako Touring KEren aurka neurtuko ditu indarrak Ostadarrek datorren asteburuan, Michelinen.

TXINTXARRI

Punturik zakuratu ez bazuten ere, Ohorezko Erregionaleko jokalariek badituzte arrazoiak pozik egoteko. Futboleko oso ongi jokatzen dakitela erakutsi zuten larunbatean Ondartzako zelaian, aukerak ere izan zituzten, baina golik ez zuten sartu eta talde batek barkatzen duenean normalean zigorra jasotzen du ondoren. Horrela izan zen larunbatean ere, eta Hondarribiak eskuratu zituen 3 puntuak 2-0 irabazita.

Bi taldeak gogotsu atera ziren Ondartzako berdegunea. Ostadar izan zen nagusi lehenengo 5 minutuetan, baina Hondarribiako erdilariek hartu zuten gero jokoaren pisua, eta hurrengo 15 minutuetan arriskuz gerturatu ziren Iker Hernandok zaindutako atera. Bizpahiru korner aterat-

tzea lortu zuten, baina herriko taldea fin ibili zen jokaldi horien defentsan eta arriskua urruntzea lortu zuen. Hasiera kementsu horren ostean, Hondarribiak pausu bat eman zuen atzera eta pixkanaka-pixkanaka Ostadarrek baloia- ren jabetza eskuratu zuen, presioan finago ibili zelako eta baloi dezente lapurtu zituelako.

20. minututik aurrera hasi zen Ostadar arriskua sortzen. Erdilariek azkar mugitzen zuten baloia gero bi hegaletara zabaltzeko. Aipagarriak izan ziren Javi Gutierrezen bi erremate; lehenengoa defentsa batek urrunditu zuen eta bigarrena gutxiatik ez zen ate barrura sartu.

Gauzak horrela, 0-0eko markagailuarekin joan ziren bi taldeak aldageletara, norgehiagoka berdindua izaten ari zenaren seinale. Dena erabakitzeke zegoen oraindik.



Irudian, Ohorezko Erregionalaren aurtengo denboraldiko lehen hamaikakoa.

Lehenengo zatia amaieraren tankera hartu zuen bigarrenaren hasierak ere. Baloi bereganatu zuen Ostadarrek eta Hondarribiaren atera hurbiltzen hasi zen, jokaldiak amaitu gabe hori bai.

1-0ekoa, gakoa

Hondarribiak pazientzia izan zuen bere aukera, eta iritsi zen. Iker Hernando atezaina apur bat berandu iritsi eta penaltia egin zion etxeko taldeko aurrelariari. Asmatu zuen jaurtiketaren norabidea,

lehenengo aldaratzea gertatzea ere lortu zuen, baina bigarrenaren ezin izan zuen ezer egin.

Gol horrek erabat aldatu zuen norgehiagokaren norabidea. Hondarribiako jokalariek indarberritu egin zituen; urduri jarri ziren Ostadarrekoak. Minutuak aurrera joan ahala berdinketaren bila joan zen herriko taldea, atzean gero eta hutsune gehiago utziz. Hondarribiak jokaldi horietako bat baliatu eta bigarren gola sartzea lortu zuen.

80. minutua zen. Ostadarrek amore eman ez bazuten ere, markagailua ez zen gehiago mugitu.

Porrot batekin hasi dute denboraldia Mikel Medina eta Gabi Sanchezen mutilek, baina burua altxa eta lanean jarraitzea beste erremediorik ez dute. Futboleko ongi jokatzen dakitela erakutsi zuten Ondartzako zelaian, baina ate aurrean finago ibili beharko dute, denboraldi amaieran estuasunik pasa nahi ez badute behintzat.

IGERIKETA.

Herriko igerilariak txukun Kontxako badiako itsas zeharkaldian

Lasarte-Oriak ordezkaritza zabala izan zuen larunbatean Kontxako badiako 72. itsas zeharkaldian. Senior mailan bost igerilari burutu zuten 2 kilometro eta 220 metroko ibilbidea.

Xabier Elizegik lortu zuen postu onena, sailkapen orokorrean 26. postua eskuratu. Bere kategorian 18. izan zen (senior gizonezkoak). 27 minutu eta 40 segundo behar izan zituen ibilbidea burutzeko. Juan Vicente Martin 44. izan zen sailkapen orokorrean eta 3. bere kategorian. Izaskun Salazarrek aldiz, 127. postua eskuratu zuen sailkapen orokorrean eta bere kategorian 3. izan zen (master emakumezkoak). Sailkapeneko hurrengo herritarra Iñigo Arias izan zen. 34 minutu eta 19 segundotan burutu zuen



Irudian, Unai G. Somovilla eta Arzalluz ahizpak Irlako zeharkaldian, abuztuan.

proba, 164. postuan zeharkatuz helmuga. Master gizonezkoen kategorian egin zuen igerian, eta 42. izan zen. Azkenik, Oscar Gilek sailkapen orokorreko 602. postuan amaitu zuen, bere kategorian (master gizonezkoak) 171. postua eskuratu.

Infantil kategoriari dagokionez, Buruntzaldea IKT taldeko bost igerilari aritu ziren

proba horretan: Leire eta Ainhoa Martin, Irati eta Joane Arzalluz eta Unai G. Somovilla. Primeran aritu ziren igerilari denak, postu eta denbora onak eskuratu. Leire Martin izan zen denetan azkarrena, sailkapen orokorrean 9. postua eskuratu eta 4.a bere kategorian. 16 minutu eta 52 segundotan burutu zuen 740 metroko ibilbidea.

LABURRAK.

Partidu bat irabazi eta bestea galdu egin zuten Errendimenduko juniorrek larunbatean

Ostadar SKTren saskibaloia alorreko taldeek 2015-2016 denboraldia prestatzen jarraitzen dute. Pasa den larunbatean birritan aritu ziren Errendimenduko juniorrak, Kiroldegian. Goizeko norgehiagoka irabazi egin zuten Teresianas talde nafarraren kontra, 76-40. Arratsaldean La Salle bizkaitarren aurka neurtu zituzten indarrak eta 50-58 galdu zuten.


Frantziako Tourreko porrako sariak banatu ditu Ostadar SKTk

Utero moduan Italiako Giroko eta Frantziako Tourreko porrak antolatzen ditu Ostadar SKTk. Girokoak banatu zituzten jada eta Tourrekoen eta bi porren sari nagusien txanda izan da oraingoa. Tourreko sari nagusia 'Adur' txartelak irabazi du, eta baita bi porrena ere. 360 eta 1.000 euroko sariak irabazi ditu, hurrenez hurren. Tourreko bigarren postua 'Wantru' txartelarentzat izan da. Horiez gain, zazpi urdaiazpiko ere banatu dituzte: 'Cafe con pelo', 'Kalamidadia', 'Oier Mlano', 'Ezti', 'Ana Iparragirre', 'Bengaba' eta azken sailkatua 'Malacha' izan dira. Puntu gehien lortu dituen saltokia Patxi Larrañaga harategia izan da aurtengoan.



— Agenda —

Ostirala, Okendo plaza, 16:30ean



Bigarren eskuko bizikleten azoka

Mugikortasun Astearen baitan, ostiralean bigarren eskuko bizikleten azoka egingo da. Aurretik herritarrek saldu edo trukatu nahi dituzten bizikletak, patinak edota kaskoak bezalako osagarriak eraman beharko dituzte plazara eta azoka bukatzean ere diruaren bila edo saldu ez bada, materiala jasotzea pasa beharko da, 19:30etik 20:00tara. Trukearen aukeraren alde egitekotan, antolatzaileak ez dira arduratuko hau burutzeaz beraz, bertan egon beharko dute jabeek. Bizikleta garestia edota teknikoak ere ez dira hartuko, gehienez 300 eurokoak izango dira antolatzaileek esan bezala. Iazko arrakasta errepikatzea da helburua eta horretarako herritarrek azoka horretan parte hartze-
ra animatzen dituzte.

Lasarte-Oria

Mugikortasun Astea

KALE NAGUSIA

Osteguna 16:30ean

Kalea Oinezkoentzat ekimenaren barruan, jolasak eta kirolak izango dira kalean. Segway zirkuitua izango da 10 urtetik aurrerako umeentzat. Bide hezkuntza zirkuitua ere izango da.

OKENDO PLAZA

Ostirala

16:30ean, Bizikleta festa, bizikleta martxa plazatik abiatuko da 6-11 urtekoentzat. Hauek ibilaldi laburra egingo dute.

17:00etan, Bizikleta festa, 12 urtetik

gorakoentzat. Hauek plazatik abiatuko dira ibilbide luzeago bat egitera. Bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa eraman beharko du.

OKENDO PLAZA

Astelehena, 18:30

'Hirian bizikleta erabiltzeari buruzko ikastaroa'. 16 urtetik gorakoei zuzenduta. Plaza mugatuak dira eta aurrez izena eman beharko da 943 670 249 zenbakira deituta.

Erakusketa

MERCERO ARETOA

Irailaren 24tik 26ra

Gureak erakundearen 40. urteurrena dela eta, 'Etorri eta bizi esperientzien lantegia. Jokoen bidez desgaitasuna

ulertzen' erakusketa izango da ikusgai. Sarrera doan.



Usurbil

7.Topa Eszenika

SUTEGI

Ostirala 19:30ean

'Jendartea Bidaide' antzezpena.

Hamaika lagunek talde artistikoa osatu dute eta zailtasun nabarmen batekin aurkituko dira: denbora epe laburrean prestatu beharko dute jendaurreko emanaldia. Antzezle bakoitza bere iaioetasunetik ariko da eta taldekideen arteko hartu emana eta elkar ulermena funtsezkoa izango da ikuskizuna garatu ahal izateko, lortuko al dute? Sarrera 5 euro. Emanaldia Kilometroak-en alde.

SUTEGI

Larunbata 20:00etan

'Obarixo biaz' antzezlanaz gozatu ahal izango da. Emakumezkoak dira taldeko antzezleak: 20 eta 60 urte arteko ondarrutarrak. Ana Elordi aktoreak zuzentzen du 2007. urtetik Traman & Brix taldea. Sarrera 5 euro.

— Herritarren txokoa —

Biyak Bat elkarteko abesbatza zuzendari bila

Biyak Bat erretiratuen elkarteko abesbatzak zuzendaria behar du. Elkarteko kideek azaldu digutenez, urtariletik aurrera hasiko litzateke lanean zuzendari berria. Interesa duten pertsonak elkartearekin harremanetan jarri behar dira 943 36 39 64 zenbakian, **biyakbat@gmail.com** helbide elektronikoan edo egoitzara hurbilduz, Kale Nagusia 40 baxua, astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

Intza K.Eren mus txapelketa

Intza K.E-ren 42. mus txapelketan izena emateko aukera dago zabalik. Honakoa irailaren 25ean itxi egingo da. Irailaren 28an hasiko da txapelketa eta izena ematearekin batera, 30 euro ordainduko ditu bikote bakoitzak eta horrela finalaren eguneko afaria ordainduko da. Baldintza bezala, bikote bakoitzean

Intzako bazkide bat egon beharko du.

Eskutitza

Zabaletako ur biltokia

Idatzi honen bidez, azken aldian Zabaleta auzoko ur biltoki zaharrean jasaten ari garen, jazarpen, umekeri edo dena- delakoa salatu nahi dugu. Auzotar talde batek ur biltokia biltegi bezala erabiltzen dugu, konpost guneko gure orbel eta zerrautsa gordetzeko. Ur biltokiaren baldintzak ikusirik (zaharra eta arriskutsua bere barrualdean) eta edozein gertaera ekiditze aldera, atea kandadu batez itxia dugu.

Hiru aldiz apurtu digute dagoeneko kandadua: lehen aldian auzoko festetan eta umekeritzat hartu genuen. Baina beste bi alditan?

Salaketa honen bidez, dagokionari (pertsona edo pertsonen) ardura eta bizikidetzaren aldeko aldarria egin nahi dio(e)gu. Gure konposta egin eta gunea zaintzen jarraitzea da desio duguna, ez besterik. Horrela izango delakoan...

Zabaleta Auzolan Auzo Elkarte

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Gipuzkoakoa bertsolari onenaren bila

Lasarte-Orian final zortzirenetako saioa izango da irailaren 27an

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren irteteko pistola-tiroa irailaren 20an da. Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasea gainditu ostean, Ane Labaka eta Unai Muñoa herritarrek eta Beñat Iguaran eta Asier Azpiroz Earra! Bertso eskola kideek abenduaren 20an Ilunben jokatu den finala dute buruan. Aurretik 6 final-zortziren, 5 final laurden eta 3 finalurreko ikusteko aukera izango dituzte zaletuek.

Irailaren 20an, igandean, Beasaingo Usurbe antzokian, arratsaldeko 17:30ean emango zaio hasiera Gipuzkoako Bertsolari txapelketari eta bertan izango dira Ane Labaka herritarra eta Beñat Iguaran Earra! Bertso eskolako kidea final laurdenetarako txartela eskuratzeko lehian.

43 bertsolari, Gipuzkoako Bertsotan sailkapen faseko 30ak eta aurretik sailkatuak zeuden 13 bertsolari, eta 15 saio. Hiru hilabetetean zehar, ederki gozatuko dute bertso zaletuek.

Herritarren erronka


Aipatu legez, Ane Labaka eta Beñat Iguaran izango dira estreineko saioan. Jon Maia,

Haritz Mujika, Iñigo Mantzizidor eta Eli Pagola izango dituzte aurrez aurre.

Anek aipatu digunez, ez zuen lehen saioan egon nahi, baina "izenak ikusita gogotsu nago. Saio polita izango dela uste dut".

"Jendea zain egongo da, lehen saioa delako. Gainera, Maia eta Mantzizidor daude eta nirekin batera bertsoan hasi ziren Beñat Iguaran eta Aritz Mujika. Saio berezia izango da beraz", adierazi du.

Unai Muñoa berriz, urriaren 3an, Elgoibarko Herri antzokian izango da eta final-zortzirenen azken saioan, Andoainan, izango da Asier Azpiroz Earra! Bertso eskolako kidea.



Ane Labakak igandean jokatu du final-zortzirena; Unai Muñoak berriz, urriaren 3an. Lasarte-Orian, irailaren 27an izango da saioa.

Saioa Lasarte-Orian

Saio hauetaz gain, beste hiru final-zortziren izango dira Azpeitia, Arrasate eta Lasarte-Orian.

Maidar Arregi, Mikel Artoila, Aitor Irastortza, Xabier Sukia, Beñat Lizaso eta Gorka Azkarateren arteko norgehiagoka ikusteko aukera izango dute herritarrek irailaren 27an, igandean, Manuel Lekuona kultur etxean.

Sailkapena

Hurrengo fasean egoteko,

herriko bertsolari eta bertso eskolako kideek bi aukera dituzte: beraien saioa irabazi edo puntuazio altua eskuratzeari.

Hogeita hiru bertsolari izango dira aurretik sailkatuak zeuden hamahiruekin batera hala nola, Beñat Gaztelumendi Jon Martin, Alaia Martin edo Jexux Mari Irazu, final laurdenetan kantuan.

Final laurdenak Urretxu-Zumarraga, Erretera, Zestoa, Ormaiztegi eta Eskoriatzan jokatu dira.

Sarrerak

Saioetako sarrerak eskuratu nahi dituenak aurrez erosi ahal izango ditu www.bertsosarrerak.eus webgunean.

Saioen egun berean ere jarriko dira salgai, aretoetako leihatiletan 16:00etik aurrera.

Saioetarako sarrerez aparte, bertsozaleek Txapelketarako bonua erosteko aukera dute. Bonuak saio guztietara joateko aukera emango du, finalera salbu.

Saio guztiak 17:30ean jokatu dira, finala izan ezik.

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2015-16

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian errolatua egotea
- Gutxienez % 85eko asistentzia

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

ONDO
iBiLi!